

EUSKALDUNAK (1950 - 2000)

Joxe Mari Aranalde

OARSO, urtehurren batekin agertu nintzaizun lehengo urtean. Aurten ere hala natorkizu. Berrogeitamargarren bat zen hura. Hala duzu hau ere. Orixen zenaren obra batena zen hura, eta hala da hau ere. "Urte guziko meza-bezperak" zen haren izena, eta "Euskaldunak" da honena.

Zahar kontu askotxorekin ote nabilen? Zer nahi duzu, nere urteei beren ohorerik ezin ukatuko diet. Gainera, zahar kontuak eta kontu zaharrak oinarri beharrezkoa ez ote dira berrientzat?

Lehengo urteko haretan esaten nizun, 1999. urtean kontu asko esango zela letretan euskaraz, baina apustu egingo nizula ezetz fisik esan nik aitatzen nuen urtehurrenaz. Aurten ez dizut apustu berdinek egingo, jakina bainago badela nonbait urtehurren hau ospatzeko asmorik.

Eta nondik hasi EUSKALDUNAK poemaren urreztaiak direla-eta derakartzudan berriketaldi hau? Has nakizun mingainaren puntaren puntan daukadantetik.

Neri lehenengo edizioa gustatzen zait gehiena eskuetarako eta begietarako. Aurreko azalean erakusten da oihal eder hura senditu bezala egiten dute eskuek, eta barneko marrazkiak ere Santos Etxeberriarenak atseginagoak zaizkit gerokoak baino.

Nik banuen -banituen- edizio hartakorik; baina orain ez daukat. Eman bakarren bat, galdua besteren bat, ... Ni gabe, behintzat, orain.



Lehengo batean erosi dut. Eta sinista nahi al didazu, nereagoa iruditu zaidala, gerozko Auñamendik eta Etorrek eta abarrek egindako edizioak baino? Zer den lehenengo maiteekin topo egitea!

12.000 pezeta pagatu nuen. Ez dut pagatutako damurik. Gehixeago ere pagatuko nuke. Norbaitek bakarren bat nahiko balu, hari erosteko kupirarik ere ez daukat. Baina norbaitek erosi nahiko balu, salgai non dauden esango diot. Hobeki gastatutako sos askorik ez du izango, EUSKALDUNAK pagatzen gasta ditzakeen 12.000 horiek baino.

Nik erosi nuen aleak data polit bat dauka lehenengo orrialdean, aurreko azalaren pean. Polita, zuretzat eta neretzat behintzat, OARSO. Hona: "21 JUL 1950". Maalena bezpera, halajaina!

Diru hori pagatu eta dendatik atera nintzenez, sekulan nere burutik pasa gabeko pentsamentu bat pasa zitzaidan. Hauxe: Orixeri ez niola egundaino entzun sosik kobratu zuenik EUSKALDUNAK poemarengatik. Kobratu ezaren kejarik ere ez nion entzun, beste liburuaren batengatik entzun izan nion bezala. Pentsamendu horixe izana dut lehengoan, OARSO. Orain arte sekulan izan gabekoa. Zu ez zaitetz harri, OARSO, hain obra haundi eta ederra eta miresgarria izan arren, bere jabea-ri sosik eman gabekoa izatearekin. Obra horren jaiotza ezagutuko bazenu! Esango dizut.

Zatoz nerekin poemaren azken bertsoa. Bukaerako urtea datatzen da bertso horretan. Hona nola eta zergatik:

*Bertsolariak oitura baitu
esaten urtegarrena,
bertsu-lan oni jakin zer urtez
eman diodan azkena:
Kristo jaiorik emeretzireun
ogei ta amalagarrena ...
Ederrik ba du, Arena du, ta
txarrik ba du, neronena.*

Horra fetxa jarria. Eta baita esana ere zeren harira eta zeri jarraiki: "Bertsolariak oitura baitu, esaten urtegarrena". Ikusten zeintzurekin lerrotatzen duen bere burua orexarrak? Bertsolariekin. Ez zen haserre izango Xenpelar, bizi izan balitz. Orixen ere gonbida zezakeen bixitatxo baten egitera.

Bertsolarien ohitura gogoan, beraz, idatzi egiten du Orixek zein urtetan bukatu duen poema EUSKALDUNAK. Eta forma polit horretan idatzi ere: "emeretzireun". Forma horretaz berataz baliatzen da beste nonbait ere poemaz zehar. Zeinen gauza politik egitera behartzen gaituen askotan bertsoaren lege zorrotzak. Hori eta

OARSO

180

2000

“urtegarrena” delako horiekin topo egiteagatik bakarrik balio du poema osoa irakurtzearen “nekea” hartzeak.

Baina data hori ez dugu gogora erazi Orixeren “artista-keriak” erakusteko. Bukaerakoa eta argitaratzekoa konparatzeagatik egin dugu. Ikusten zer tarte dagoen hor, eta gogoratzen tarte horretan zer dagoen? Aldi gorria dago hor. Luzea eta ikaragarria. Ia hogeitaz daude tartean, eta zer urteak! Jaiotzen denean, aita ez dago hemen. Atzerrian da.

Ikusten orain, zergatik esaten nizun jaiotza negargarria izan zuela? 1935ekoa da Ibar zenaren “*Genio y lengua*”. “...a punto de salir a la luz la obra monumental...” dagoela esaten du EUSKALDUNAK poemarengatik. Ibar-ek ezagutu egiten du orexarraren obra, ortografia kontuak-eta eskolapio honi konsultatzen baitizkio Orixek. “... a punto de salir...” Lektutan!

Eta mila et bederatzirehun eta hogeita hamabostean ateratzeko puntuak omen dagoen EUSKALDUNAK horri, hona zer irizten dion tolosarrak, delako “*Genio y lengua*” liburuan:

“Un acontecimiento literario de estos días, llamado a adquirir celebridad histórica, previene felizmente nuestra objeción, y conforta nuestro patriotismo con el socorro más valioso y oportuno. (Zer da delako “objeción” hori? Beranduegi ez ote gabiltza euskaldunaren izaera berezkoa berreskuratzeke?).


En efecto. Por disposición providencial de Dios, ha surgido entre nosotros un hombre extraordinario, de temperamento, sensibilidad e inspiración geniales; el cual, de la abundancia de su propia vida, pletóricamente vasca, acaba de PLASMAR LA FIGURA VIVA DE NUESTRO GENIO en una epopeya folklórica imperecedera. Él ha acertado a REUNIR Y ARTICULAR EN UN SISTEMA IDEAL DE HARMONÍA Y ESPLENDOR LAS PIEZAS ORGÁNICAS DISPERSAS DE LA CIVILIZACIÓN VASCA. Su esfuerzo llega, pues, a tiempo para salvar nuestra empresa renacentista, encarrilándola por la ruta verdadera.

Lo decimos con toda la convicción y lealtad que hasta ahora hemos puesto en el diagnóstico de nuestros males; con igual independencia de juicio y el mismo espíritu levantado: EN EL POEMA EUSKALDUNAK DE Orixé TIENE YA EL PUEBLO VACO EL INSTRUMENTO VIRTUAL DE SU RE-GENERACIÓN.

(193-94 orrialdeetan)

Orrialde horietan eta beste ia berrogei batean Ibar jaunak aitortzen dion baliorik eta hari eragiten dion harri-duririk eta harengan sortzen duen onarpenik ez zuen izan EUSKALDUNAK poeman 1950. urtean agitaratzen zenean. Hasteko, poema horren eragileak falta ziren. Lizardi hila zen. Garaietan hila ere, gainera! Aitzol erahila zuten. Guridi, Markiegi eta abar ere, Orixezaleitsuak, erahilak zituzten. Poemarekin amets egiten zuen belaunaldia desegina bezala zegoen, eta, nik esan behar banu, poeman jasotzen den herri-bizitza ere bai. Poemakoekin konparatuta, gustuak et ideak eta ideologiak bestelakotuak zeuden. Eta onarpena izan bazuen ere, ez Ibar jaunak uste eta aitortu bezalakoa. Beraz ez zuen bere-bere gauzatzen ezagutu eta hartu zenbait euskalzalek, inoiz idatzi den obrarik euskaldunen hau.

Eta zenbait aitzakia axaleko eta baxterreko eta bestelako bilatu zituen kritiko zenbaitek, hala nola enkarguzkoa omen zela poema, euskal-izaera osoa ez zuela jasotzen, baserri-usain gehiegi omen zekarrela eta bat eta beste. Eta ederrez eta betez eta argiz eta graziz eta gozoz eta mila modutako zapoz ia mugagabea den poema honek ez zuen sortu Ibar jaunak espero zuen entusiasmorik eta txalorik.



Hala ere ni Ibar-ekin gelditzen naiz. Eta irakurriago eta gehiago. Eta ez naiz bakarra. Badut lagunik. EUSKALDUNAK poemari egiten zaion kritikarik benetakoena, nik irakurleengandik jaso dudana hau da, batere bila ibili gabe jasoa gainera: poemaren zatirik ederrentzat norberak bere bizitzan gehien ezagutu eta bizitu duen hura daukala.

Bazen Lazkauko beneditarretan Alberto Begiristain izeneko monje maitagarri eta argi bat. Hura eta biok behin poemaz ari ginela, neretzat “axurtaro” du hoberena esan zidan. Alberto hau ere, Orixé bezalaxe, artzaikondoa zen.

Bada Ondarrun gizon bat, uretan jaioa eta uretarako balio ez zuena eta apaiz egin zena, amaren pozerako eta ezagutu dugun beste guztion atseginerako. Andoni du izena. Basterretxea lehen abizena, eta Irusta bigarrena. Oraintxe argitaratu du liburuxka polita “*Ene Ondarru*” izenarekin.

Euskaldunak poemaren hamabost kantuetako bat “*Eztaiondo*” da. Bertan “*Estropadak*” eta beste hainbat gauza ageri dira, denak itsasoari dagozkionak. Ondarruko seme honen iritziz, nahiz eta poemaren beste zenbait zati buruz jakin, hori omen du hoberena. Ondarruar honentzat itsasoko kontuak eta kantuak dira hoberenak.

Eta horien ondoren, ni naiz hirugarrena. Nik EUSKALDUNAK lehenengo aldiz nere hemezortzi bat urterekin irakurri nuenean, “*Gaztañaro*” kantua gustatu zitidan

gehien. Hura ezagunena? Besteak baino ezagunago behintzat. Horra irakurleen kritika zinezkoa. Zinezkoa eta dagokioenetakoa, edozein obrari dagokionez ere.

Laugarrena zu zaitezke. Zuk egin dezakezu ibilaldi bat EUSKALDUNAK poeman barrena, eta esan, guk esaten dugun bezela, inolako itxurakeririk eta gezurrik gabe, nekez egingo dela obra euskaldunagorik eta ederragorik eta harrigarriagorik EUSKALDUNAK poema baino, irakurri duzuna irakurri duzula eta irakurriko duzuna irakurriko duzula.

Nik nerea esango dizut: Gero eta gehiago harritzen eta argitzen nauela. Oxala zuri ere gauza bera gertatuko balitzaizu.

